

PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK 2026

1. artikulua.– Xedea

1. Oinarri hauek Arabako enpresa-sare industrialari laguntzeko programa arautzea dute xede. Horretarako, **Vital Banku Fundazioak diru-laguntzak emango ditu Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuetako Ganberak eta SEA Arabako Enpresak Elkarteak** Arabako industria-enpresen lehiakortasuna, berrikuntza, jasangarritasuna eta eraldaketa hobetzeko garatzen dituzten jardueretarako.
2. Arabako industria-enpresetan jarduera praktikoak gauzatuz antolatzen da programa, eta enpresa horiek programaren esparruan emandako laguntzen eta zerbitzuen onuradun izango dira.

2. artikulua.– Programa zertan datzan

1. Programa hau **ez da laguntzen ekarpena, ezta enpresentzako zuzeneko diru-laguntza lerro bat ere.**
2. Vital Banku Fundazioak ekarpen ekonomikoak egingo dizkie **Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberari eta SEA Arabako Enpresak Elkarteari**, eta horiek arduratuko dira enpresa onuradunei zerbitzuak emateaz.
3. Programaren xede den harreman juridikoa eta ekonomikoa **Vital Banku Fundazioaren eta Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberaren eta SEA Arabako Enpresak Elkartearen** artean besterik ez da ezarriko, parte hartzen duten enpresek/enpresekin hartutako konpromisoek kalterik egin gabe.

3. artikulua.– Jarduera-eremua

1. Jarduketak Arabako Lurralde Historikoan egin beharko dira.
2. Parte hartzen duten enpresek gutxienez jarduera-zentro bat izan beharko dute eremu horretan, eta bertan garatuko dira jarduketak.

4. artikulua.– Programaren helburuak

1. Arabako enpresa- eta industria-sarea indartzea.
2. Araba eta Vitoria-Gasteiz bere izaera industrialaz harro dauden lurraldea eta hiriburua izan daitezela.
3. ETEen produktibitatea eta lehiakortasuna handitzea.
4. Hobeto gobernatutako eta finantza aldetik sendoagoak diren enpresak lortzea.
5. Kalitatezko enplegua sortzea eta talentua atxikitzea.

6. Elkarlanean diharduen eta jasagarria den enpresa-ekosistema finkatzea.
7. Industriaren egoera txarraren ondorioz zailtasun ekonomikoei aurre egin behar dieten Arabako eremuak biziberritzea, hala nola Aiaraldea eta Arabako Errioxa.

5. artikulua.– Enpresa parte-hartzaileak

1. 1. Programan parte hartu dezakete honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresek:
 - a) Behar bezala eraturako pertsona juridikoak izatea, eta eskaera egiten den egunean 5 langile baino gehiago izatea.
 - b) ETE izatea.
 - c) Industria-jarduerak garatzea, EJSN hauetakoren bat barne:
 - **10-12 dibisioa:** Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria.
 - **13-15 dibisioa:** Ehungintza, jantzigintza eta larruaren eta oinetakoen industria.
 - **16-18 dibisioa:** Zuraren, kortxoaren, paperaren eta arte grafikoen industria.
 - **19-21 dibisioa:** Kokeriak, petrolioaren finntzea, industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak.
 - **22-23 dibisioa:** kautxuzko, plastikozko eta mineral ez-metalikozko produktuen fabrikazioa.
 - **24-25 dibisioa:** Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa.
 - **26-28 dibisioa:** Produktu informatiko, elektriko, elektronikoen, optiko, makineria eta ekipoen fabrikazioa.
 - **29-30 dibisioa:** Motordun ibilgailuen, atoen, erdi-atoien eta bestelako garraio-materialen fabrikazioa.
 - **31-33 dibisioa:** Altzarien fabrikazioa, beste manufaktura-industria batzuk, makineriaren konponketa eta instalazioa.
 - d) Arabako Lurralde Historikoan lantoki bat izatea..
 - e) Jarduketa garatzeko behar besteko antolamendu-gaitasuna izatea.
 - f) Zerga-betebeharrak eta lan-betebeharrak egunean izatea.
 - g) Sexuagatiko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jaso ez izana.
2. Enpresa parte-hartzailea izateak **ez du esan nahi, inola ere, zuzeneko laguntza ekonomikorik jasoko duenik.**

Enpresak jarduketa-ildo batean parte har dezala onartu ondoren, baldintzak betetzeari buruzko zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du.

6. artikulua.– Jarduketa-ildoak edo programaren ardatzak

- (i) Inbertsio estrategikoa, eta VBF arduratuko da hori burutzeaz.

- (ii) Produktibitatea hobetzea teknologiaren eta prozesuak hobetzearen bidez (berringeniaritza, Lean/Kaizen, ERP/CRM), eta SEA arduratuko da hori gauzatzeaz.
- (iii) Industria-enpresetako prozesuen hobekuntzari aplikatutako adimen artifiziala. GANBERA arduratuko da horiek gauzatzeaz.
- (iv) Zibersegurtasun aurreratua inplementatzea, eta SEA arduratuko da hori gauzatzeaz.
- (v) Sektore-dibertsifikazioa eta barne-ekintzailtza (trena, defentsa, mugikortasun elektrikoa). GANBERA arduratuko da horiek gauzatzeaz.
- (vi) ESG araudia. GANBERA arduratuko da horiek gauzatzeaz.
- (vii) Industria eta gazteak. SEA arduratuko da hori gauzatzeaz.

7. artikulua.– Enpresek parte hartzeko mugak

1. Enpresa bakoitzak programan parte hartu ahal izango du, oinarri hauetan ezarritako baldintzetan.
2. Enpresa berak eskabide bat baino gehiago aurkezten badu edo onartzen bazaio, horietako bat besterik ez da onartuko, erakunde betearazleak edo Vital Banku Fundazioak ezarritako irizpideen arabera, eta gainerako eskabideak baztertu egingo dira.
3. Muga horrek eskura dauden baliabideen banaketa orekatua bermatzea du helburu.

8. artikulua.– Parte hartzen duten enpresen betebeharrak

Enpresa parte-hartzaileek honako betebeharrak hartuko dituzte beren gain:

- a) Esleitutako jarduketan aktiboki eta arduraz parte hartzea.
- b) Programaren esparruan eskura jarritako baliabide eta zerbitzuen erabilera arduratsua eta egokia egitea.
- c) Jarduketak behar bezala gauzatzeko behar den informazioa ematea.
- d) Eraitzen jarraipena, ebaluazioa eta neurketa egiten laguntzea.

- e) Jarduketa bakoitzean ezarritako epeak, mugarriak eta baldintzak betetzea.
- f) Jarduketaren garapenean eragina izan dezakeen edozein inguruabar garrantzitsu jakinaraztea.

9. artikulua.– Enpresa onuradunak hautatzea

1. Zerbitzuen edo laguntzen enpresa onuradunak **Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberak eta SEA Arabako Enpresak Elkarteak** hautatuko dituzte, Vital Banku Fundazioak alde aurretik zehaztutako eta onartutako irizpideen arabera.
2. Irizpide horiek honako atal hauek hartu ditzakete kontuan, besteak beste:
 - a) Enpresa jarduketa-ildoari egokitzea
 - b) Hobetzeko potentziala eta inpaktua
 - c) Enpresaren konpromiso-maila
3. Vital Banku Fundazioak hautaketa prozesua gainbegiratu eta baliozkotuko du.

10. artikulua.– Ez-betetzeak

1. Enpresa parte-hartzaileek ezarri zaizkien betebeharrak betetzen ez badituzte, honako hauek gerta daitezke:
 - a) Abian den jarduketatik kanpo uztea.
 - b) Programaren etorkizuneko edizioetan onartuak ez izatea.

11. artikulua.– Publizitatea eta hedapena

1. Programaren esparruan garatutako jarduerak Vital Banku Fundazioa aipatu beharko dute, Programaren erakunde sustatzaile den aldetik.
2. **Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuetako Ganberak eta SEA Arabako Enpresak Elkarteak** programaren ikusgaitasun egokia bermatuko dute beren jarduera eta materialetan.

12. artikulua.– Datuen babesa

Programan parte hartzearen ondorioz emandako datu pertsonalen tratamendua datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da.

13. artikulua.– Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Programak arau hauek izango ditu:

- a) Oinarri arautzaile hauek.
- b) Oinarriak garatzen dituzten deialdi espezifikoak.
- c) Vital Banku Fundazioari aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko araudi orokorra.
- d) Aplikatzekoa den beste araudiren bat.

AZKEN XEDAPENA

Programan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea.

- Inbertsio Estrategikoaren Ardatzean izena emateko epea:

Programa indarrean dagoen edozein unetan aurkeztu daitezke eskaerak, hau da, 2026ko ekainaren 16tik 2027ko ekainaren 15era.

Vital Banku Fundazioak proposamen bakoitza aztertzeko prozesua amaitu ondoren hautatuko ditu proiektuak.

- Gainerako ardatzetan izena emateko epea:

1. Deialdia: 2026ko ekainaren 16tik irailaren 15era.

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuetako Ganberak eta **SEA Arabako Enpresek** hautatuko dituzte proiektuak 2026ko irailaren 16tik 30era, eta 2026ko urriaren 1etik aurrera ezarriko dira, enpresen baliabideen arabera.